

Tabu ideologikoa

Markos Zapiain



(Irun, 1963). Bermeon bizi da. Bertako Institutuan Filosofia irakasten du. Doktore da Filosofian eta Lizentziatua Filologian.

Bere lanak *Euskaldunon Egunkaria*, *Gara*, *Bozka*, *Ostiela!*, *Egin*, *Berria*, *Bazka* eta *Jakin*-en argitaratu ditu.

Hitzaldi ugari eman du filosofia eta euskal literaturaren inguruan: Larrabetzun, Londresen, Lazkaon, Iruñean, Eibarren, Bilbon, Miarritzen, Beiruten, Hondarribian, Donostian...

Argitara emandako liburuen artean daude: *Zenbait terrorista* (Txalaparta, 2003), *Errua eta maitasuna* (Elkar, 2002), *Denbora eta egia: Kojèveren gogoeta* (Erroteta, 2006). Itzulpenak ere egin izan ditu; besteak beste, *Gizakiaren heriotza* (Jakín, 1998) eta *Duintasuna* (Enbolike, 1999).

Egunez ez bezala. San Pankrazio barregarri

Markos Zapiain

Ematen du etakideen amets guztien ezaugarri komunak zehazteko orduan, hobe dugula, Freuden definizioa baino (ametsa desiren betetzea dela, nahi inkontzienteen mamitzea), herio baliatzea, James Hillmanen *Dream and the underworlden* eskutik herioren erresuman barneratzea. Etakideen ametsen artean, badira desirak mamitzen dituztenak, baina baita desirak mamitzen ez dituztenak ere; alabaina, molde batekoak zein bestekoak heriok bidaliak dira. Goio “Gorria”ren bigarrena izan ezik, etakideen ametsek biziaren alde ilunaren zenbait forma barnebildu eta adieraziko lituzkete, murgiltzeak lirateke herioren putzu likinetan, azpimunduaren irudiak, leizezulo kezkarriak, ifernuko hainbat zirkulu: itsaso izoztuan gozoro itotzea, anaiarekin ezin elkar aditzea, denbora ahitzea (*Gizona bere bakardadean*); norbera zerraldoan sartu eta hiltzeko amaren agindu idorra eta agindua ezin betetzea; (*Hamaika Pauso*); maitearengandik bereizi beharra, maitearen hilketa, jendarte zuri hila, eri horzgabeak (*Zeru horiek*); Ama gari berdean etzana amapola odoldu antzo (*Koaderno Gorria*); psikopata baten atzapar hilgarria lepoan eta psikopataren suntsitzea gero pilulaz lepo eginik, buruaz beste egitearen aldeko erabakia Bizkaia bouean, aurretik mezu politikoa itsasoratuz munduak izan dezan gure herriaren patu dohakabearen berri (*Agirre zaharraren kartzelaldi berriak*); koman-dokide bizilaguna deabru bilakatua, eskuak erretzea, nortasuna galtzea, errugabea hiltzea (*Pasaia Blues*); giza eta abere haragi zatikatuaren susmoa, norberaren gorputza zatitzea, aita galtzea, bakardadea, Lapur Handiari aurre egitea (*Lagun izoztua*); arrain abisalen ontzitik amak hil egin dela abisatu dizu eta zure adiskiderik handiena ere, jadanik hila, bertatik mintzo zaizu; biraka zabilta Lurraren inguruan oxigenoa ahitzen ari zaizula eta alboan hiliko

astronauta miretsi bat duzula, espaziontzia kolpez Lurrera erori da, astronauta zerraldoan, agurra hilari; maisuak heriotzaren trenea hartu behar du, bultza egiten dizute heriotzaren trenean sar zaitezten (*Soinujolearen semea*); olatu ikaragarri bat labartzan mugitu ezinik dagoen preso ohia itotzera dator; militar espainolak kanpandorreko eskaileratik gora doaz bertan ezkutatu den preso ohia hiltzera (*Labartzari agur*)...

Heriotzaren formak dira, sentimendu zurrinak, kilkerren hotsak, sukarraren hozkia, ezerezaren goganbearra, bizia uzteagatik ezinezona, izotz eroa, urduritasun goibela.

Bestelako ondorio orokorrik atera behar ote da heriotzaren nagusitasun horretatik? Apika ametsen batasun horri buruz, garbi adieraz ez daitekeenari buruz bezala, hobe da isiltzea. Izan ere, heriotza ezereza baita eta ezerezaz, Kojèvek zioenez, gehienez ere badela esan daiteke, baina ezin daitezke bere ezaugarriak zehaztu. Orobat eta kideen ametsen oinarri komunaz. Bizitza korapilatsutik heriotzaren sinpletasun lasaira itzuli nahia adierazten dute oro har. Dena den, egia bada ere herio dela gailen, ezin bertatik etakidearen “egitura psikologiko” tipikoa edo antzekorik ondoriozta, ez baitago halakorik. Aitzitik, etakide amesgile bakoitzaren nortasuna besteenaren arras bestelakoa da, eta maiz gainera aldakorra, erakundean sartzeko, bertan jarraitzeko edo uzteko arrazoiak bezalaxe.

Etakideen amets guztiak aztertutik, ematen du amesgilearen tabu politikoren bat apurtzen duena Txillardegiren *Labartzari agur*-reko protagonistaren bigarrena dela.

1.

Txillardegi, borroka armatuaren alde. Ondorio hori atera du Peio Ruiz nire ikasle eta beraz etsaiak *Labartzari agur* Txillardegiren azken eleberria irakurrita.

Antton Ihartzegarai protagonistak bai, espetxetik irten ondoren Labartza ezaguturik borroka armatua aldeztuko du, lan politikoa alferrikakotzat joz, zizpoleta askabide bakartzat.

Alabaina, Txillardegi ez baita Antton Ihartzegarai.

Borroka armatuaren gaineko Txillardegiren iritziak ezagutzeko Txillardegik berak bere izenean idatzirikoa aztertzeak artezagoa dirudi, lehen begiratuan bederen. Gaur egun, Txillardegi Aralarren dabil. Eta borroka armatua ez zaio egokia iruditzen, ez arrazoi etikoengatik, baizik arerioari egiten diolako mesede.

Hala ere, bereizi beharra dago batetik jendaurrean esanikoa eta bestetik barne-muinetan joan eta etorri, goiti eta beheiti dabil-tzan sentimendu uherrak, nork bere buruari aitortzeko ere gaitzak.

Literatura azken hauen adierazpide izaten da. Halatan, Txillardegi bi genituzke gutxienez: bata “Berria”n eta “Gara”n izkribu koherenteetan borroka armatuaren aurkako argudioak garatzen dizkiguna, eta bestea, sakonagoa, Antton Ihartzegarairen aldarteekin bat egiten duena.

Baina hori ez da aski, korapilo gehiago dago oraindik: idazlearen eta bere pertsonaien arteko harremana nahasia duzu, osoro zehazten ezinezkoa, zaila da idazlea eta protagonista zeharo bat etor daitezen: idazleak falta zaiona erants diezaioke pertsonaiari, edo sobera duena, edo ez bata ez bestea; eredu gisa aurkez dezake, kontraeredu gisa, ez bata ez bestea; bere pertsonaiaren bidez nortasun zein politika jakin bat kritikatu nahi ukan dezake, edo barregarri utzi, edo goraiatu. Ia edozein aukera mamitu du literaturaren historiak. Idazleak, gainera, beste edonork bezalaxe, sarritan ez du benetan zer nahi duen jakiten.

Zentzu honetan, kalte handia egin du Koldo Mitxelenaren iradokizunak *Peru Leartzakori* egin zion hitzaurre eder bezain eztabaidagarrian, hots, Txillardegik Peru eredu gisa aurkeztu digula¹ Mitxelenaren froga ahula da: Peruk zein Txillardegik, biek darabiltela giltza-hitz gisa “sasi aurrizkia”.

Edozein gisaz, ez da ezinezkoa Txillardegiren sakonuneren batek bere irakurleok erotu eta hil nahi izatea, Leturia, Peru, Elsa, Exkixu, Putzu eta hein batean Ihartzegarairen galbidetik. Munstro hiltzaile bat ezkutatzen du beharbada Txillardegik, irakurlea herio hurbil izaten duten jarreretara bultzatzen duena.

Baina hori ez da Txillardegiren berezitasuna, baizik idazle eta gizaki guztion ezaugarria. Denok dugu alde suntsitzaile gogor bat atezuan, irteteko aukera egokiaren zain.

Baliteke ordea irrika hiltzaile unibertsal hori Txillardegik bere literaturan gauzatu izana. Irratian iaz gogoratu zuenez, frantses bategen behiala “hila duzu maite” esan zion, “tu aimes le mort”. Zer pentsatua eman baitzion antigutarrari.

Baliteke, bai, bazitekeen, baina ez da izan. Txillardegik, nire uste apalean, ez Peru Leartzako ezta Antton Ihartzeagarai ere, ez dizkigu eredu gisa aurkeztu. Aitzitik, *Labartzari agur* aurreiritzirik gabe irakurrita, orain eta hemen borroka armatua aldeztekin ezin dela patologia legez baino ulertu nabari da bertan, gizartefobia, eldarnioa, lokamutsa, iraganzalekeria, buruerrukia eta pitzadura orokorra nagusi dituen koadro kliniko batean.

1 Koldo Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak II, Liburuak 1*, Euskal Editoreen Elkarteak, 1988, 139 or.

2.

Zehaztu beharra dago “pitzadura orokorra” eta “iraganzalekeria” bezalakoak ez direla balorazioak, ezta interpretazioak ere, baizik Ihartzegarairen kideen eta gehien maite dutenen ikuspuntua: Andzrrek: “hi ez hago ondo” (186); eta arreba Ixaskunek: “yota hago nerbixoetatik, Antton. Medikutara yoan bihaz ahalik eta azkarrunik”. (173)

Eta horrelaxe ikusten du Anttonek berak bere burua: “ez nabil ni ondo, eta ez gutxiagorik ere. Edozerk hausten nau, edozerk etsipenera eramaten. Ez naiz lehengoa”. (170)

Ihartzegarairen baitako borroka, eritasuna dakarkiona, atsotitz bion artekoa da: “joanak joan” eta “izana izen gaiztoa”. Anttonek ezin du lortu denbora ezinbestean badoala onartzea, beti ari dela guztia aldatzen. “Joanak joan, errepikatzen nion neure buruari. Baina faltsuki mintzo nintzaion”. (166)

Bigarrena nagusituko zaio. “Behin eta berriz Izana izen gaiztoa, esaera pozoitsu hura nagusitzen baitzen nitaz, benetan tema astun eta eritasun iraunkor bihurtu arte”. (166)

Iragan galduagatik min naturalaz bestelakoa da labartzarraren seta. Etengabe zigortzen du bere burua aspaldiko zaurietan ozpina boteaz. Katuak lagunduko digu oraingoan Ihartzegarairen ezaugarri nagusian (Txillardegiren obra osoko giltzetako batean) barnerraten: hamabi bat urte zituela (orain berrogeita hamar ditu) sarritan joaten zen Goia baserrira arreba Ixaskunekin, bertako neska-mutilekin olgetan. Behin batean, katu beltz gaxte bat leiho baten bestaldean egotera derrigortu zuten. Kristalak gelara sartzea eragozten zion. Zirika aritu zitzaizkion, jausi zen arte. Gorpu anartean beroa berpizten saiatu arren, hilik zen sekula betikoz. Gaztetxoan aieneak eta negar zotinak! Katua lurperatu eta gurutze bat jarri zioten. Anttonek orduan gizakien hilezkortasuna sinesten zuen gutxi gorabehera, katuena ez ordea, kontsolamendu eskasa beraz alde horretatik. Amonen heriotzek ere ez zuten horrenbeste oinazetu. Erantzukiak eta demandak egingo dizkio atsedenek gabe bere buruari.

Ixaskun zuhurra ahaleginduko da neba kontsolatzen: intentzio txarrik ez dutela izan, ahaztuko zaiola apurka-apurka. Eta Anttonek ziplo: “Etxonat ahaiztu gura, hain zuzen be! Katutxo gizajoa! Eta negarrari eman diot luzaz, oso luzaz. Afaldu ere ez dut egin”. (143)

Hogeita hemezortzi urte igaro dira. Azkeneko hamazazpiak Espainiako espetxeetan eman ditu Antton Ihartzegaraik. Bertan zela hil zaizkio aita-amak. Ama gainera Anttonek legearen arabera espetxetik kanpo behar zuelarik. Hiletara ere ez zioten utzi. Horrek guztiak ez dio noski orekari eusten lagunduko.

Kontua da presondegieta irten osterako bidaia kontrakronologiko bat prestatuko duela, iraganeko leku erabakigarrien bisita atzekoz aurrerakoa.

Hain zuzen, leku sakratuetako bat katutxoa lurperatu zutenekoa izango da. Gurutzeta izan zen tokian belaunikatu eta otoitzik egin gabe isilik egongo da luzaroan.

3. Preso ohiaren aurkako tsunamia

Lau hilabete irailaren 14an Valcornejako espetxetik atera zuten zutenez geroztik, gaixotzen ari da Antton.

Txillardegik kontatzen dizkigun bi ametsak alde batetik gaitortze prozesuaren adierazpen dira, sintoma, eta bestetik lastertzaile, eritasunerantz bultzatu egiten dute. Lokamutsak dituzu biak, garrasika esnatuko da bietarik Ihartzegarai, eta Ixaskunek du kontsolatuko. Txillardegik bietan sartzen gaitu ez soilik abisu barik, baizik irakurleari sinetsarazi nahian Antton errealitatean dagoela, ez ametsetan.

Heriotzak mehatxatuko du amets bietan Antton, lehenbizikoan naturak eta bigarreanean kulturak, alegia, poliziak.

Putzuk ere jasanak zituen amesgaiztoetan eraso naturalak. Lizarran zela, Urbasaren hegia ikaragarri ageri zitzaion. “Urederraren arroaren gainetik bizkarra konkortutako munstro eskerga gisa, edozein mementotan gain hartatik behera amiltzekotan bailegoan, mehatxu itxura nabarmena hartu zuen. Eta nik neuk behintzat, bizpahiru aldiz ikusi nuen neure lokamutsetan, biziak harturik antza, eta nire gainera basaki erortzen”. (205)

Ihartzegarairen lehenbiziko amets honek lehenagoko asteetan Anttonek bizi izanikoa bilduko du, batez ere kolpe latzak: urriaren 22an, 14 urteko eatarraren itotzea, hileta, itsaso gupidagabea: hurbil dabilkio heriotza.

Gero, ametsari dagokionez egun erabakigarria, azaroaren hamaika: aurrena, Antton oroitzen da nerabezaroan Izarteko lata beltz beldurgarriaren gainaldera joaten zela lagunekin kilkerak, sugandilak, ziraunak eta musker hori-berdeak harrapatzera, bizia zoroki arriskuan jarritz; ondoren, txoriek zeruan uve eskerga bat osatzen dutela ikusiko du eta, larritasunen bat sumatu balu bezala, mutu, zurtuta eta pentsakor geldituko da; azkenik, ekialdera begira geldituko da, kostaldeko itsasargiei, Igeldo, Iger, Miarritze.

Azaroaren hamaika horretakoak jasoko ditu oroz lehen ametsak, baina biharamunean, hamabian, Ixaskunek kontatuko dio beraiek Valcornejatik etortzeko harturiko hegazkinak istripua izan duela, eta Anttonek espetxe barruan baino larriago sentituko du bere bu-

rua, “erkin, zaugarri, hauskor. Nerabezaroan Selakuan harrapazten genituen ziraun haiek, ikarak hartuta, gure eskuetan hauskor gertatzen zitzaizkigunean bezalaxe”. (137)

Abenduaren hamazazpian berpiztuko du Anttonek katutxoaren tragedia.

Eguberrian, azkenik, amaren heriotza gogoratuko du, hamar hilabete lehenago jazioa, Antton kartzelan zela.

Urtarrilaren hamazortzian bilduko zaio aurreko guztia lehenbiziko ametsean, hauxe:

Labartaz bestaldean, Izarteko lata beldurgarriaren erditsuan, mugitu ezinean gertatu nintzen arrastiri batez itsasora begira. Musker hori-berde eder baten atzetik tematuta, konturatu orduko izu betean.

Berrogei bat metro gora, gaineko zelai eta labartza-bururaino; eta beste berrogei behera, zut, itsasertzeko arroketaraino.

Neure hartan muskerraz ahaztu nintzen.

Bizkarraren kontra neukan arbel eiteko horma berdaxka luzea. Eta aurrealdean, berriz, itsaso zabala.

Neure oinak belar izpi bakanen gainean pausatzeko koskak, ozta-ozta ni zutik egoteko aukera ziztrina eskaintzen zidanak, arra pare bat zabal baino ez zuen.

Arnasari ahal bezala eutsiz, eta atsedenaldi laburrak noiztenka baliatuz, jiratu egin nuen soina, eta eskuineko besoa zabaldu. Esku ahurraz har-lata ukitu nuen. Hotz zegoen oso; eta, izoztuko ez bazitzaidan, askatu egin behar izan nuen segituan.

Eta oreka ezegonkorrean berriro, besoak inora heldu gabe gelditu nintzen.

Mehatxu nabarmen gisa, itsas orro gaitza zetorkidan latapetik. Ez nuen deusik ulertzen.

Erokeria hutsa zitzaidan koska arriskugarri hartaraino jaitsi izana.

Umetandik genekien sugandilen eta muskerren bila Labarganera igotzen ginenean, guztiz kontuz ibili behar zela Labarburun eta Izarte gaineko ertzean.

Goi hartatik amilduz gero, arroketaraino erortzeaz beste aukerarik ez zegoen.

Hortaz, zerk eraginik haraino lerraturik?

Izarteko labar zutaren erditsuko koska hartan ni oinutsik paraturik, bitan banatzen zitzaidan mundua: aurrealdean, itsaso neukan; eta atzealdean, harri berdaxkazko horma hotz ikargarria.

Arrastiria mamitzen hasi zen; eta Labarganeko Farola piztuta, ber argi balak hedatzen hasi zen gainaldetik eta Kantauriraino.

Ez gora, ez behera ni. Ezin deusik.

Zer egingo?

Antxeta zuri-urdin mordo bat pasa da nire aurretik, karrakari; eta latapeko harkaitzetara jiraka jaitsi.

- Antxeta bihur ahal banendi! –neure artean–.

Aurrealdeko itsasargiak pizten hasiak ziren, banan-banan, eta Capbretoneraino: Igeldo, Iger, Miarritze... Besteren bat ere bai, ñirñirkari, bertago eta eskuin alderago.

Hotzikarek hartu naute bortizki.

Zer egingo? Zer? Zer egin ote nezake neure hartan? Noiz arte eutsi ahal izango?

Alajainkoa! –neure artean ari–. Lata berdin beldurgarri honetan, zulorik ez, heldulekurik ez, tarterik edo arraildurarik bat ere ez!

Orduan orro berri bat sortu da itsaso urrunetik.

Eta olatu eskerga bat lehertzen hasia ikusi dut aurrealdean, tsunami erraldoi bat, ihortziri etengabetan itoa. Itsasikara bat Labarganera zabalera osoan heldu.

Arestian ikusia nuen itsasargien ilara suntsitu egin da olatu erraldoiaren atzean.

Jaisten saiatzea erokeria izango zelakoan, goraka abiatu naiz. Alegia, eskuineko hanka jaso dut eta horman pausatu. Igotzekotan.

Eskuetan hotz mingarria sentitu, eta oinetako behatzetan, aldiz, azkura.

Burua jiratu, eta itsasaldea berrikusi dut.

Sekula antzemango ez nuen “mailström” ipartar hura bertago zen, eta altuago, eta erraldoiago.

- Eneee!... Eneee!!... Eneee!!! –bota dut hiru aldiz, gero eta ozenkiago– (149-151).

4. San Pankrazio barregarri

Biharamunean beste gertakari bitxi hau jazo zitzaidan; eta are kezkatuago utzi.

Ondarrondo pasealekutik Labargane aldera nindoalarik, aurretik hurbildu zait berrogeita hamarretan zegoen gizaseme bat. “Adinkide bat”, esan nezake.

Zer diot “adinkide”, ordea? Sosia bat hurbildu zaidala esan behar nuke: guztiz nire antzeko gizaseme bat, nire anaia bikia (izan banu). Areago: ispiluan neure burua begiratzen dudanean aurrez aurre ikusten dudana berbera.

Ikaratu egin nau osotara: “bera ni da”... Edota “ni bera naiz”.

Eta nire ondotik pasatzerakoan, doinu irmoz agurtu nau:

- Antonio Diarsegay!

Enrique gartzelazainaren ahotsa zen. Eta deituraren ahoskera okerra ere, berea.

- Presente!! –erantzun dut automata batek egingo lukeen bezala. Valcornejako errekontuetan egiten genuen bezalaxe–.

Eta berak Atxeta aldera jarraitu du.

Uste dut. Ez bainuen badaezpada atzealdera begiratu ere nahi. Hura izua!

Eskuin aldera jo dut aldapa leunean behera. Zorua labain zegoen tarteka. Eta ustekabean irristatu egin naiz; baina ez naiz erori.

San Pankrazio elizara sartu naiz. Zertarako? Zergatik? Ez dakit.

Hutsa eta hotza zegoen. Eta martiri gaztearen irudiari, tragiko gertatu beharrean, barregarri iritzi diot.

Aldareko eskuin aldean, argi xume batek zizekan.

Kanpandorrerako atea zabalik, eskailera hertsu erpinetan gora abiatu naiz arnasestuka.

Militarrez jantzitako soldadu espainol aldra bat sartu da elizara.

Alimaleko piperpotoari eragiten ziotelarik, oihuka hasi dira elizaren barruan. Eta tiro hotsak hasi dira: bost, hamar, ehunka...

“¿Dónde ehtá, Antonio, asesino?”

Harrigarrizko oihartzunak errepikatu dira barrukian:

“Asesino... sesino... sino...”

Geroxeago, Enrique mozkorti krudelaren ahots ozenaz berriz ere, galderak eta mehatxuak ugaltu dira:

“¿Dónde ehtá? ¡Entrégate, Antonio! ¡Si no lo hase, será peor!”.

Kanpandorrean goraino jarraitu dut.

Orduan isilaldi trinkoa gauzatu da.

Nik neure taupadak entzuten nituen une hartan.

Erlojuak ordua jo du nire ondoan ezin ozenkiago, belarrietan oinaze bizia emanaz.

- Bostak! –neure artean–.

Eta mehatxu berak errepikatu dira.

“Antonio!... Asesino!... ¡No saldráh vivo!... ¡Entrégate!”

Itzedun bota astunen hotsak kanpandorre barrutik nigana hurbiltzen sumatu ditut.

- Ez!!! –jaurti dut garrasika, eztarria hondatzeko moduan– ... (170-172).

5. Egunez ez bezala

Bigarren amesgaiztoa Anttonek eri egingo du, hotzikaraz eta sukarraraz. Bezperan betiko tokietan txango zebilela etxeko bidea ahaztu du. Neurologo baten eskuetan jartzea onartu dio arrebari.

a) Ametsean lehenbiziko orrialdeko kartzeleroa ageri da, Valcornejako Enrique gorrotagarria.

Ondotik igaro zaio Anttoni. Baina zer ikusi du honek?

Bere burua!

Guztiz nire antzeko gizaseme bat, nire anaia bikia (izan banu). Areago: ispiluan neure burua begiratzan dudanean aurrez aurre ikusten dudana berbera.

Ikaratu egin nau osotara: “bera ni da”... Edota “ni bera naiz”. (170)

Zer esan nahi du zehazki Antton eta bere kartzelero espainola berdinak izateak?

Zer adierazi nahi dio ametsak Anttoni, edota Txillardegik irakurleari?

Nobelan zehar aurreneko orrialdetik beretik pertsonaiarik higuigarriena izan zaigun Enrique kartzeleroarekin goitik behera identifikatzeak zer erakusten dio Anttoni?

Egia ezkutu bat agian? Arrisku bat?

Aurkakoak eta etsaiak azken batean berdinak direla, aurkikuntza dirudienek ezialdekoa jatorriz baina beti eta nonahi berpizten dena?

Edota, zehazkiago, hasieran desberdinak izan zitezkeenak etsaitasunak berak eramaten dituela berdin jokatzerara eta ondorioz berdintsuak izatera?

b) Gero, elkarren ondotik igaro ostean, Antton San Pankrazio elizan sartu da eta martiriaren irudia tragiko beharrea barregarri egin zaio.

Hemen ere bada beste enigma bat, Anttonen eta Enriqueren berdintasunari lotua, mundu-ikuskerara eta arazo berari dagokiona: izan ere, Anttonek nobelan zehar etakideak eta gudariak aberriaren alde odola ematen duten martiri gisa ikusten ditu, era heroiko tragikoan. Horretxegatik dio ametsen “beharrea”: “martiri gaztearen irudiari, tragiko gertatu beharrea, barregarri iritzi diot”. (171)

Zer esan nahi ote dio oraingoan ametsak Anttoni, eta Txillardegik irakurleari?

Esanahiak gorabehera, azkenik, militar espainol batzuk, Enrique buru, elizan sartu eta Antton hiltzen ahaleginduko dira. Antton kanpandorrean ezkutatu da. Baina militarrek badatoz kanpandorreko eskaileretatik gora. Orduantxe esnatuko da Antton, asalatu bezain izutua.

c) Amets honek gatazkari eta borroka armatuari buruzko Anttonen eguneko ikuspuntu kontzientea kordokatuko du, are alderantzikatu: alde batetik, gudaria eta kartzeleroa berez berdinak ez izan arren ziur aski, beren ekintzen endekatzeak berdindu egiten ditu (Ortega Lara); bestetik, bere burua sakrifikatzen duen martiri gaztea barregarri gertatzen da.

Etakidea eta kartzeleroa bat izatea, espetxea ETA bezain ETA espetxe, ametsak dioena alegia, ez dator bat Anttonen esnatuzko ikuspuntuarekin, kartzelero gaiztoen eta etakide zintzoenarekin; halaber, martiri barregarria ez dator bat gudari heroikoaren irudiarekin.

Labartzari aguren polifonia aberasten duelako da garrantzitsua bigarren amesgaizto hau: ohi bezala, pertsonaia desberdinek ikuspuntu desberdinak dituzte, baina bestalde Antton Ihartzegaraik berberak, nobelan zehar aldatzeaz gainera, kontrako ikuspuntuak izango ditu esna eta ametsetan.

Militar espainolak bera hil nahian bertan dituela egiaztatzea bezain beldurgarri eta zorabigarri izango zaio Anttoni bere bizialdi osoko jarreraren gauetzko arrakalatzea.

Horrela, hasieran aipatu Txillardegiren bikoiztasun posiblea, hots, bata “Berrian eta “Garan mintzo koherenteen bidez borroka armatuaren aurka nabari dena, eta bestea *Labartzari agure*ko literaturan, barnekoiagoa betiere, Antton Ihartzegarairen bidez borroka armatua aldeztuko lukeena, aldaturik errepikatuko zaigu Ihartzegarairen beraren baitan: egunez bere buruari borroka armatuaren beharra azpimarratuko liokeen Anttoni berari gauetz etsaien osagarritasuna eta martiritzaren irrigarria ikusaraziko lizkioke ametsak.

Gauetz eta ametsetan Anttonek traizio egingo dio eguneko Anttoni, eta alderantziz.

Zein Antton ote da egiazkoagoa?

Bistan da Ihartzegarairen eguneko ikuspuntua anakroniko bezain kaltegarritzat jotzen dela oro har, eta zabalduagoa eta ospetsuagoa dela Euskal Herrian bigarren amets honek erakusten duena; hedabide ia guztiek laguntzen dute eta gailentzen ari da historiaren eta gertaeren filma kontatzeko orduan.

6. Agur

Gero eta bakartiago eta okerrago dabil horrenbestez Ihartzegarai Labartzan, eta erabaki ausarta hartuko du: mendian isolatzea, Zingiregin, Baltza bere txakurkume berriarekin. Erabaki zuzen eta ederra barren. Marko Aurelioren *Pentsamenduak* ere eramango ditu: “aitor bat egingo dut: Marko Aurelio enperadore filosofoa bihurtu dela nire kontseilari ezkutua”. (221)

Zaratustrarena zirudien erabakiak, baina estoikoekin doa. Mendiko bakardadera ez ditu igoko, Zaratustrak bezala, eguzkipeko animaliarik harroena –arranoa–, eta eguzkipeko animaliarik zuhurrena –sugea–, baizik txakurtxo bat, eguzkipeko animaliarik leialena.

Bestalde, Marko Aurelio ez du hautatu gogaide duelako, alderantziz baizik: izan ere, Antton Ihartzegaraik Marko Aureliok

aldarrikatutakoaren justu kontrakoa egin baitu zehatz-mehatz espetxetik atera zuten zerotik.

Batetik, estoikoak iraganagatik eta etorkizunagatik kezkatzeari utzi eta oraina ahal bezain gozoro bizitza aholkatu zuen.

Bestetik, Marko Aureliok jendarteari dagozkionetan esku hartzeko aholkatzen digu, Ihartzegaraik politikari dion mesprextutik bestaldera.

Azkenik eta bukatzeko, egia da, Xabier Mendigurenek dioen legez, *Labartzari agur* Txillardegiren aurreko sei eleberrien summa gisako bat dela: Leturiaren urmahela eta maitemintzea dugu bertan; orobat ezinezkoa erdiesteko Peruren seta: iragan ezinbestean galdua berpiztu eta denbora geldiaraztekoa, baita Peruren eldarnioak ere eta mozkorraldiak; eta Elsaren erru sentimendu orokorra eta harreman gazi-gozoak “Mimu” katuarekin; eta *Haizeaz bestaldetikeko* labarrak, itsasoa, Soustons, animalianganako gupida sakona; Exkixuren eta Putzuren amorrua eta borroka... Bai, lehenagokoa barnebiltzen du *Labartzari agur* honek.

Baina aldi berean Txillardegiren libururik gazteena bilakatzen du bere amaiera irekiak. Ihartzegarai duzu antigutarrak bere protagonista guztien artean bizia barkatu dion bakarra.

Eta bukaeran Baltza txakurtxoari eginiko igarpen eta zin bel-durgarri batzuk ahaztu (“gure herrixa politikari xaxi-jakintsuez etsirik altxako dok halango batez. Etxuagu hori ikusiko ez hik eta ez nik. Zoritxarrez! Eta ikusteko aukera badogu, gudura yango gaittuk”) eta bizimodu zoriontsu bati ekiteko sustrai laukoitze badu Ihartzegaraik Zingiregin: arreba Ixaskunen maitasuna, txakurkumearen konpainia, Marko Aurelioren *Pentsamenduak* eta bederatzi milimetroko parabellum bat, eguzkipeko animaliarik humanoena, baezpada ere, batek daki, hara Igor Angulo.